

Olgetan-Benetan: Umezaroaren Lexikoa Bizkaian (I)

Iñaki Gaminde

Euskal Herriko Unibertsitatea
igaminde@bips.bi.ehu.es

Abstract

In this article, and in the subsequent ones, the author will present some materials related to the children's lexicon. All the words compiled are from Bizkaia. In addition to the words, some text is provided to help understand their meaning. Likewise, the authors provide several songs, recitations, and verses. In order to facilitate its usage, the materials are listed by subjects, instead of alphabetically. All together, there are 13 subjects; this article shows the beginning of the first subject, namely, materials related to the games played with adults

Laburpena

Artikulu honetan, eta beronen ostean etorriko direnatan, Umezaroaren lexikoaren gaineko materialak aurkeztuko ditugu. Jaso ditugun berba guztiak Bizkaikoak dira. Berbekin batera euron esangura ulertzen laguntzen duten testuak ere ematen dira. Era berean, gaiarekin eralazionatuko kantuak, errezitatuak eta bertsoak emango ditugu. Material guztiaren erabilera hobeto ustiatzekotan, alfabetikoki barik, gaika emango dugu. Denetara 13 gai izango dira; artikulu honetan lehen gaiaren hasiera emango dugu, hots, nagusiekin egiten diren olgeten ingurukoak.

Keywords: Lexicography, Dialectology, Children games.

Hitz gakoak: Lexikografia, Dialektologia, Umeen olgetak.

1. Sarrera

Orain dela urte batzuk hemen aurkeztzen diren gaien gainean neukan informazioa plazaratzea bururatu zitzaidanean¹, uste nuen ikaragarritzko uzta zela; urteen joanean askozaz gehiago daukadan honetan, oster, uste dut apurtxo bat baino ez dudala batu. Nire asmoa oraingo hau osatzea izan da eta egunen baten, herri gehiago arakatuta, liburu moduan kaleratzea.

Hala ere, osatzen dudan artean, edo beste batzuek hobe burutzen duten artean, tiraderan usteltzen edukitzeari larreko luxu iritzi diot eta egin ahala, zatika eta artikulu gisa, kaleratzea otu zait. Ze, harrigarria begitanduagatik, alor honetan beharizan handia dago, ikasleek, irakasleek, guraso berriek gai hauen gaineko interesa eta egarria sarritan iragarri dute. Ez dakit zer gertatzen den, ez dakigun bibliografia erabiltzen edo zein den arazoa. Gero eta gauza gehiago egiten da baina ailegatu behar diren lekuetara ez dira ailegatzen, antza.

Nik artikulu sorta honetan dakardana, herririkerakoa da. Olgetan-benetan ibiltzen naiz informatzaileekin eta eurek dakitena ematen didate. Tradizio zaharrear oinarrituko gauzak dira hemen agertzen direnak. Batzuk berrerabilgarriak izango dira, beste asko museorako; hala ere, lexikoa eta testuetan agertzen diren hizkuntza forma asko eta asko gaur erabiltzeko modukoak direlakoan nago. Irakurleek erabakiko dute zer eurekand.

Hemen aurkezten dudana ez da sistematikoki egineko bilduma bat. Gure ibilaldietan agertuz joan direnak baino (hemengoan tamaina ikusita, sistematikoki eginez gero, zer edo zer batu liteke oraindino); bestalde, Bizkaiko lurretara mugatu naiz eta bertan ere ez naiz leku guztietara ailegatu; hala ere, materialak ederrak dira eta besterik ezean ondo pasatzeko modukoak izan daitezke.

Gure honek hiztegi itxura daukan arren, ez dugu hiztegi hutsa egin gura izan, izan ere, sano jende gutxi irakurtzen ditu hiztegiak. Haatik, olgeta errazenetatik abiatuta konplexuetarantz erabiltzen den testuez hornituko berba bilduma interesgarria osatu dugulakoan ekarri dugu hona.

Herrietan jaso ditugun berbak jaso diren moduan ematen ditugu, jatorrizko ahoskera islatzeko, non jaso den agertuko da ondoan eta, berba guztien ostean, [] ikurren artean, molde normalizatua edo agertuko da. Testuen aldaki fonologikoaren ondoan euskara batuaren ordaina ere ematen dugu.

Materialak 13 ataletan banatuta aurkeztuko ditugu artikulu hauetan zehar: (1) Nagusiekin egitekoak, (2) Karraderan egitekoak, (3) Salto egitekoak, (4) Zabukatzekoak, (5) Elkar harrapatzekoak, (6) Korroan egitekoak, (7) Ostendu egitekoak, (8) Jaurtikitzeoak, (9) Imitatu egitekoak, (10) Trebeziazkoak, (11) Piztiekin egitekoak, (12) Hizkuntza olgetak eta (13) Jostailuekin egitekoak.

¹ Gaminde, Iñaki: "Bizkaiko ume-olgeten lexikoaz" FLV-77, 55-76orr.

2. Nagusiekin egitekoak

Txiki-txikitxotan egiten diren lehen olgetetan nagusien parte hartzea ezinbestekoa izaten da bidea irekitzen hasteko, behin abian paratuz gero, bera beratara hasten da, geroago eurek eurotara ekiteko. Lehen atal honetan burutzeko nagusia behar duten hasierako olgeta horietarikoak berbak ikusiko ditugu.

Umeak leku batetik bestera erabiltzean, eurok umeok egin dezaketan arren, gehienetan nagusi batek hartzen du umea, beronen hankak idunaren ingurutik direla:

ankorkillo (Zaldibar); **ankurkillo** (Abadiño, Berriz, Zaldibar), **ankarkulu** (Ereño, Nabarniz) **ankurkulu** (Mendata) [**hankurkuilua**]

"Ankarkulu amen godxen, amen samatik, esku bidzekin oratu noberak, da olan ixate san (**Nabarniz**)" (Hankurkilo hemen goian, hemen samatik, esku biekin oratu norberak, eta hola izaten zen)

"Neuk ebaliko saittut, e, ankurkillo da amen ebalitie, etorri neuk ankurkillo ebaliko saittut eta (**Zaldibar**)" - (Neuk erabiliko zaitut, hankurkilo eta hemen erabilita, etorri neuk hankurkilo erabiliko zaitut eta)

arrekikili (Larrabetzu, Zamudio); **arrekiko** (Arrieta); **arretxikili** (Zamudio) [**arrekikili**]

"Arrekikili batzuetan emen, baya beste batzuetan emen, arrekikili, da asko ibilte san arrekikili lenau, e? (**Larrabetzu**)" (Arrekikili batzuetan hemen, baina beste batzuetan hemen, arrekikili, eta asko ibiltzen zen arrekikili lehenago, e?)

arrekokosidxo (Bermeo), **arrekokosillo** (Bermeo), **arrokosillo** (Bermeo) [**arrekokosilo**]

"Erdu lastana arrekokosillo erungo saixut (**Bermeo**)" - (Erdu lastana arrekikili eroango zaitut)

biskerreti kadera (Zollo) [**bizkarretik kadera**]

istartolaka (Zeberio) [**iztertolaka**]

kallo-kallo (Zeanuri) [**kailo-kailo**]

kikili (Arrieta, Mungia, Fika, Forua, Larrabetzu, Zamudio); **kikilli** (Arrieta; Fika, Fruiz, Errigoiti, Muxika); **kikilin** (Zamudio); **kikilito** (Lezama); **kikilli artu** (Errigoitia) [**kikili**]

kokotean (Dima), **kokotien** (Ereño); **koskotien** (Muxika) **kokotin** (Berriatua) [**kokotean**]

"Etorri koskotien ibiltten (**Muxika**)" (Etorri kokotean ibiltzen)

mokorretatik (Zaldibar) [**mokorretatik**]

tantoballe (Lekeitio) [**tantoballe**]

txikon (Berango, Gatika, Jatabe, Leioa, Mungia, Sopela); **txikoan** (Bakio, Lezama, Meñaka); **txikotian** (Fika, Meñaka), **txikotien** (Arrieta, Errigoitia, Fruiz), **txikotan** (Berango, Erandio, Jatabe, Leioa, Mungia), **txikitoyen** (Arrieta) [**txikoan**]

"Lelau a olga bere itxe san ori, txikon parata (**Jatabe**)" - (Lehenago olgatu ere egiten zen hori, txikoan paratuta)

"Txikotan da goyen, ta emeti arretxiko (**Jatabe**)" - (Txikotan da goian, eta hemendik arretxiko)

"Diferentie da, kikili de, ameti koisten dosus kaderak, da bestie da txikotien (**Arrieta**)" - (Desberdina da, kikili da, hamendik hartzen dituzu hankak, eta bestea da txikotean)

"An matza egote san beti ona, asta matza beti ona egote san, amen geu pere, sarri koyu dune baya aurten galdu ein yosku denporalak eta, ba igual eitteuden, e, bata bestean ganean txikon paraute matza ostuten ta, baya igual ama egote san bentanan erroldarie tausenean (**Mungia**)" - (Han mahatsa egoten zen beti ona, asta-mahatsa beti ona egoten zen, hamen geuk ere, sarri hartu duguna baina aurten galdu egin digu denboralak eta, ba beharbada egiten zuten, bata bestearen ganean txikoan paratuta mahatsa osten eta, baina beharbada ama egoten zen leihoan erroldariak dagozenez)

"Arretxiko, lepoan kodxute itxe san, lepoan kodxu lagune ta, arretxiko ori ixeta san (**Mungia**)" - (Arretxiko, lepoan hartuta egiten zen, lepoan hartu laguna eta, arretxiko hori izaten zen)

"Altza gora ta alan dabiltzu txikotan (**Leioa**)" - (Altxatu gora eta halan darabilzu txikotan)

Umea masailetatik oratuta, behetik altxatzean Bilbo ikusiko dutela edo erakutsiko zaiela esaten zaie. Beste bertsio baten Gasteiz aipatzen da.

bilbo ikusi (Arrieta, Barrika, Ereño, Etxebarria, Fika, Gatika, Ibarrangelu, Jatabe, Lemoa, Lezama, Mungia, Urduliz, Zamudio); **bilbo ukusi** (Bakio, Leioa); **bilbo erakutzi** (Berriatua, Jatabe) [**Bilbo ikusi**]

"Ia, atxiñe esateoskunien, etorri ona Bilbo ukusten ta atzes imiñi txe belarririk olan gora altzeu (**Bakio**)" (Ea, antzina esaten zigutenean, etorri hona Bilbo ikusten eta atzez ipini eta belarririk hola gora altxatu)

"Altza gora eta, alan altza gora, sera, ta Bilbo ukusten dosu? alan, kaderatati altza gora ta Bilbo ukusten dosu? (**Leioa**)" - (Altxatu gora eta, halan altxatu gora, zera, eta Bilbo ikusten duzu? halan, oinetatik altxatu gora eta Bilbo ikusten duzu?)

"Bai Bilbo ikusten ori sarrak ite oskuen, bai sarrak ite oskuen guri, geupe estotzu in umeari, e? baye guri bai ein doskue sarrak, olan artute te Bilbo ikusten,

ta gora altzau, gora altzau (Lemoa)" (Ba Bilbo ikusten hori zaharrek egiten ziguten, bai zaharrek egiten ziguten guri, geuk ere ez diegu egin umeei, e? baina guri bai egin digute zaharrek, hola hartuta eta Bilbo ikusten, eta gora altxatu, gora altxatu)

"Bilbo erakutziko tzut ointxe ta (Berriatua)" (Bilbo erakutsiko dizut oraintxe eta)

biturie senbet lapiko (Zeanuri) [**Bituria zenbat lapiko**]

"Biturie senbet lapiko? da eskegite aukite san, ba esan artiño, ta gero esaten dauen orduen bajatu (Zeanuri)" (Bituria zenbat lapiko? eta eskegita edukitzen zen, ba esan artino, eta gero esaten duenean baxatu)

Umea gora altxatuta dagoenean, esanarazi egiten zaio "Bilbo (Ereño)"

Ume txikitxoekin egiten diren hasierako olgetetako baten begiak tapatzen dira eta bien bitartean zer edo zer esaten da.

mamo eiñ (Amoroto) [**mamo egin**]

mamurru (Amoroto) [**mamurrua**]

papau (Gatika) [**papau**]

tata maria (Gatika) [**tata maria**]

Kuma bantzuaren makilen atzean ostendu, bitarteko zerrikituetatik aditu eta banakusazu ez nakusazuka ibiltzen denean, ezkutunean sartu eta segituan agertu egiten dela edo olgetan-benetan arte bitarte batetik ostukarrean aditzen denean esaten dira ondokoak:

kuku (Forua, Gatika, Lekeitio); **kukuke** (Elantxobe, Lezama) [**kuku, kukuka**]

kuku iñ (Gatika, Sopela, Urduliz); **kuku eiñ** (Abadiño, Elantxobe); **kuku ein** (Zeberio); **kiku eiñ** (Bermeo) [**kuku egin**]

Honelakoetan umea barreka ibiltzen da. Era berean, ume txikerrek edozeineri egiten dioten barrearen gainean honakook erabiltzen dira:

iñusente barre (Elantxobe, Forua) [**inuzente barre**]

kuku-barre (Gatika, Lezama) [**kuku barre**]

Umea jesartzen hasten denean, nagusiok berarekin egiten ditugun hasierako olgeta horietan umearen gorputz atal baten laztantzen dugu, olgetaren aldeak

garantzen ditugun artean. Batzuetan berba batzuk izaten dira, beste batzuetan errezitatu antzekoak. Norberaren eskuekin bera laztantzean ondokoetaringoren bat esaten dugu:

TATANA GOZOA

Tatana gosoa

ser guroso

txitxi ta papa

aitak eta amak

dili dale, dili-dale

dili dale

(Fika)

Tatana koxoa

ser yan dosu geur?

txitxi te papa

ta niri segaitik emon es?

aitek eta amak itxi es

sapi, sapi, sapi

(Zamudio)

Hemen agertzen den "tatan" berba "laztan" berbarekin beraren desitxuratze bat besterik ez da; mendebaldeko herri batzuetan izena ez eze aditza ere erabiltzen da:

tatana (Fika, Gatika, Urduliz, Zeanuri); **tatantxue** (Lezama), **tatantxu** (Arrieta, Fika) [**tatana**]

tatan iñ (Gatika, Urduliz); **tatantxu iñ** (Arrieta, Gatika) [**tatan egin**]

Errezipitatuarekin batera olgeta mukurutzeko txalo egiten zaio, edo eskuarekin aurpegitxoan txaplada txikitxoak eman, edo, gizonezkoa izanez gero, bizarragaz igurtzialdi batzu beraren aurpegi maisalatxoetan egin, eta kili-kili gorputzean:

kili-kili (Abadiño, Arrieta, Derio, Dima, Elantxobe, Forua, Gatika, Jatabe, Meñaka, Mungia, Sopela, Urduliz); **kili-kilie** (Larrabetzu, Lezama, Zamudio); **kili-kilidxe** (Arrieta) **kiri-kilidxe** (Bakio); **gili-gili** (Abadiño, Otxandio) **kirimilea** (Zeberio) [**kili-kili**]

"Esaistesu egin kirimilerik (Zeberio)" (Ez iezadazu egin kili-kilirik)

“Kilikilie edo iten dakie (**Lezama**)” - (Kilikilia edo egiten zaie)

kili-kilik eiñ (Jatabe, Mungia); **kili-killi eiñ** (Arrieta),
kili-kili eiñ (Abadiño); **kili-kili iñ** (Arrieta,
Meñaka); **gili-gili eiñ** (Abadiño) **kiri-kili eiñ**
(Bakio) [**kili-kili egin**]

TUTULUMIO

Tutulumio
Nondik etorri?
Arabatik
Ser ekarri?
ogie ta gastaya
Non dosu babak?
Txakurrek eta katuek yan
Sapi, sapi, sapi, sapi
(**Zeanuri**)

MONA-MONA

Mona mona
ser ekarri?
txitxi tte papa
norentzako?
suretzako
eta Yontxuntzako bapes
(**Muxika**)

LAZTAN GOZO

Lastan goso
amoroso
beti goso
txipi, txipi txipi txin
(**Elantxobe**)

MIXO MIXOTE

Mixo mixoote
nun isen saraaate?
sola guunen
ser eiiiitten?
txitxi tte papa jaten, jaten, jaten
(**Aulesti**)

Mixo mixote
nun ixen serate
solagunen
ser egitten?
txitxia eta papa jaten
(**Aulesti**)

MISERIAK ETA MAU

Mixerik eta mau
ser yan dosu bart?
Txitxi eta papa
Niri segaitik aputxu bet emon es?
Aitek eta amak itxi es
(**Derio**)

KATALAMIXON

Katalamixon
nun ixen?
kaltxelan
sel ekali?
gastue eta ogidxe
nun itxi?
armaidxuen
nok jan?
txakulek eta katuek
eta niri?
bape emon barik jan!
sapi, sapi, sapi
(**Abadiño**)

Katalamixon
nun ixen?
kartzelan
ser ekarri?
gastai eta ogidxe
nun itxi?
armaidxo ganien
nok jan?

katue eta txakurrek
(**Abadiño**)

Katarramixon
non ixen?
andikuen
se itten?

ogidxe ta gastaye jaten
sapi, sapi, sapi
(**Berriz**)

Katalamixon
Non ixen gixon
Gasteluen
se itten?

ogidxe ta gastaye jaten
sapi sapi sapi
(**Berriz**)

Katalamixon
nundik etorri?
gastelutik
ser ekarri?
gastai eta ogidxe
nun itxi?
arasan

txakurrek eta katuek jan
txau
(**Iurreta**)

Katalamixon
nundik etorri
gastelutik
ser ekarri
gastai eta ogidxe
nun itxi
arasan
arasan estau
katuek jan dau

katue non dau
labarra agora martxau
labarra non dau

suek erre
sue non dau
urek amatau
(**Mañaria**)

Katarramixon
nundik etorri?
Arabatik
ser ekarri?
ogidxe ta gastaye
sapi, sapi, sapi
(**Otxandio**)

Katalamixon
nun ixen?
Gastelun
ser ekarri?
ogidxe ta gastaye
noendako?
da katutxuek jan
sapi, sapi, sapi, sapi
(**Zaldibar**)

Katalamixo
mixo mixote
ser ekarriko?
sapata ta gerriko
nundik?

Bitturidxetik
nuintzako?
Dxontxuentzako
txalo-txalo-txalo
(edo)

Tatalamixo
mixo mixote
(**Zornotza: Euba**)

Kilikiño
 nundik etorri?
 Arrabatik
 ser ekarri?
 ogie ta gastai
 non dosue ba?
 txakurrek eta katuek yan
 txaka txaka
(Zeanuri)

Eragidxosu eskutxuari
 bein alde batera
 eta gero bestera
(Elantxobe)
 Ergidxosu
 eskutxu ori
 bein batian da
 bein bestiori
(Elantxobe)

Norberaren eskuari eragin eginda, edo umearen eskuari oratuta eta norberak eraginarazita olgetan ibiltzen da txikerrak diren artean. Eragiten zaion artean honelako bat esaten da:

Ukabila mahai gainean, esaterako ipinita, hezur konkorretan eta hezur bitartean norberaren atzamarra pasatzen da eta kontatzen da ondokoa esaten den bitartean:

Eragiosu eskutxuari
 bein batera
 eta gero bestera
(Amoroto)

Maro marotxu
 eragiosu
 eskutxu orreri
 bein batiari tte
 bein bestiari
(Aulesti)

Eragiosu eskutxuari
 bein batari
 ta gero bestiari
 gero bestiari
(Ondarroa)

Eragiosu
 eskutxu ori
 bain batera
 eta gero besteari
(Berango)

Onek eta onek eta
 onek eta onek
 bat estudiautzen oni
 onek esan sion oni
 dominatzaillie au te au
 dominatzaillie au te au
 onixek dire ogetalau
(Abadiño)

Orrek eta onek
 eta onek eta orrek
 bart estudiau seben
 konbidatzeko au te au
 konbidatzalle au te au
 ontxe dira ogetalau
(Etxebarria)

Arrautzaren ibilbidea, batek egiten duenik gora harik eta erkoroak jan artean, kontatzen da atzamarrik atzamar ondoko errexitatuaren bidez

Uribe Kosta

Onek arrotzatxu erosi
onek prijiduten imiñi
onek gatza bota
onek proba aputxu bet
eta onek dana yan

(Lemoiz)

Onek arrotzatxu eiñ
onek topa
onek presta
onek gatza in ta proba
ta onek traga

(Gatika)

Onek arrotzatxu eiñ
onek topa
onek presta
onek gatza bota
eta onek yan

(Gatika)

Onek arrotzatxu eiñ
onek topa
onek proba
onek presta
ta onek loditxuk traga

(Laukiz)

Mungialdea

Onek arrotzatxue
onek perejille
onek presteu
onek probeu
t'onek trageu

(Mungia)

Onek arrotzatxue ekarri

onek presteu

onek probeu

onek gatza eiñ

ta onek trageu

(Fika)

Onek arrutzetxue iñ

onek altzeu

onek presteu

onek probeu

eta onek trageu

(Fruiz)

Onek otie ta egurre ekarri

onek sue bistu

onek olloa ill

onek pesteu

ta onek dxan

(Bakio)

Busturialdea

Onek gatza ekarri

onek berakatza

onek presteu

onek probeu

eta onek loditxuek dana akabeu

(Axangiz)

Onek arrutze topeban

beste onek egurre batuban

beste onek sue iban

onek prijidu iban

eta lodi onek artu ta dan dana jaban

(Muxika)

Onek arrotzatzue iñ
onek ekarri
onek presteu
pnek probeu
te onek trageu
(Errigoiti)

Onek arrotza topaban
onek plasara erun ban
onek sartena imiñi ban
onek gatza bota tzon
eta onek lodi lodidzek dana dxaban
(Elantxobe)

Onek erosi deu arrotzatzu bet
onek ipiñi deu bridxiduten
onek bota tzo gatza
onek proba deu aputxu bet
eta onek lodi onek dana dxan deu
(Ibarrangelu)

Onek arrotzatzu ekarri
onek sartenien ipiñi
onek gatza bota
onek apurtxu bat jan
da onek dan dana jan
(Ereño)

Onek arrotzatzue ipiñi ban
onek erretan ipiñi ban
onek gatza botatzon
onek aputxu bat jaban
ta onek dan dana loditxu onek jaban
(Nabarniz)

Au dxun san mendire
onek lagundu
onek arrotzie topa
onek prijidu
onek dana dxan
da lodi lodi
(Bermeo)

Lea-Artibai

"Onek ei ban arrautzi erosi
onek sutan ipiñi
onek gatza bota
onek piskat proba
ta onek totuonek dana jan
(Ondarroa)

Durungaldea

Onek basotik egurre ekarri
onek sue iñ
onek presteu
onek probeu
ta onek dana jan
aittik dau lodi-lodi-lodi
(Zornotza: Euba)

Onek, arrotzie ekarri
onek, prijidu
onek, gatza bota
onek, serbidu
eta onek dana jan
(Iurreta)

Arratia

Onek abie topau
onek arrotzia ekarri
onek gatza bota
onek probau
te onek totolo onek dana yan
(**Zeanuri**)

Onek arrotzatxu at ekarri
onek prestau,
onek gatza in,
onek probau,
onek motor nausi onek
dana akabau
(**Dima**)

Onek arrotzatxu bet erosi
onek erretan imiñi
onek gatza bota
onek probau
te one tana yan
(**Zeberio**)

Txorierrri

Onek amari arrotzetxue ostu
onek imini
onek pititxu bet probeu
onek dana yan
ta onek amari esan
(**Derio**)

Onek arrotzatxu ekarri
onek imini
onek presteu
onek gatza bota
ta onek potolotxu onek dana akabeu
(**Larrabetzu**)

Onek arrotzatxuek ekarri
onek imini
onek gatz ein
onek probeu
te onek yan
(**Larrabetzu**)

Onek arrotzatxu ekarri
onek prejidu
onek gatza bota
onek probeu
te onek yan
(**Lezama**)

Onek arrotzea ekarri
onek presteu
onek gatza ein
onek probeu
eta onek dana yan lodi orrek
(**Lezama**)

Onek ekarri
onek sartena imini
onek origoa
onek prijidu
te onek yan
(**Zamudio**)

Onek arrotzetxue erosi
onek prijitan imini
onek gatza bota
onek apurtxu be txan
eta one pesteak lodiek
dana dana yan
(**Zamudio**)

Atzamarren tasunak, ez izenak, banan-banan aipatzen direla egiten da kantu ospetsua den ondoko hau:

Lenengotxu ori	Bosgarrentxu ori
punta biatz ori	punta beatz ori
beste gustidxen artean	beste gustidxen artean
txikia dok ori	lodia da ori
bigarrentxu ori	(Axangiz)
punta biatz ori	Lelangotxu ori
beste gustien artien	punta beatz ori
alperra dok ori	beste gustien artian
irugarrentxu ori	lodia dok ori
punta biatz ori	tralalalaran
beste gustien artien	Bigarrentxu ori
lusea dok ori	punta beatz ori
laugarrentxu ori	beste gustien artian
punta biatz ori	fine dok ori
beste gustien artien	tralalalaran
biskorra dok ori	Irugarrentxu ori
bosgarrentxu ori	punta beatz ori
punta biatz ori	beste gustien artian
beste gustien artien	andia dok ori
lodidxa dok ori	tralalalaran
(Arrieta)	Laugarrentxu ori
Lenengotxu ori	punta beatz ori
punta beatz ori	beste gustien artian
beste gustidxen artean	alperra dok ori
txikia dok ori	tralalalaran
Bigarrentxu ori	Bosgarrentxu ori
punta beatz ori	punta beatz ori
beste gustidxen artean	beste gustien artian
erdikoa da ori	txikerra dok ori
Irugarren ori	tralalalaran
punta beatz ori	(Derio)
beste gustidxen artean	
asia dok ori	
Laugarrentxu ori	
punta beatz ori	
beste gustidxen artean	
sendoa dok ori	

Lelengotxu ori
puntan beatzori
beste gustien artean
ederra dok ori
bigarrentxu ori
puntan beatzori
beste gustien artean
biskorra dok ori
irugarren ori
puntan beatzori
beste gustien artean
nagie dok ori
(Larrabetzu)

Lenengotxu ori
puntan biatz ori
beste gustien artian
txikerra da ori
Bigarrentxu ori
puntan biatz ori
beste gustiek baño
makala dok ori
(Lezama)

Lelengotxu ori
punta biotzori
beste gustien artian
txikia dok ori
laran lan laran
bigarrentxu ori
punta biotzori
beste gustien artian
nagia dok ori
irugarrentxu ori
punta biotzori
beste gustien artian
lusia dok ori
laugarrentxu ori
punta biotzori

beste gustien artian
sendoa dok ori
bosgarrentxu ori
punta biotzori
beste gustien artian
lodia dok ori
(Orozko)

Lenengotxu ori
punte beatz ori
beste dustien artean
txikerra dok ori
bosgarrentxu ori
punte beatz ori
beste dustien artean
lodie dok ori
(Zamudio)

Lelengotxu ori
punta biatz ori
beste gustien artean
politago ori
lara la lara
bigarrentxu ori
punta biatz ori
beste gustien artean
ederra dok ori
lara la lara
(Zamudio)

Lenengotxu ori
punta biatz ori
beste gustien artean
txikerra dok ori
la lara la la la
bigarrentxu ori
punta biatz ori
beste gustien artean
nagia dok ori

la lara la la la
 irugarren ori
 punta biatz ori
 beste gustien artean
 lusia dok ori
 la lara la la la
 laugarrentxu ori
 punta biatz ori
 beste gustien artean
 sendoa dok ori²
 la lara la la la
 bosgarrentxu ori
 punta biatz ori
 beste gustien artean
 lodia dok ori
 la lara la la la
 (**Zeanuri**)

Ume koadrila bateko lagunek, nagusiaren aurrean jesarrita, eskuak ipintzen dituzte mahai gainean edo, gutxi izanda, altzoan. Bakoitzaren atzamar guztietatik norberaren atzamarrak pasatzen dira eta amaitzean baten atzamarra hartzen da; umeak zuhur egoten dira, jakin badakakite eta, amaitzen denean, eta atzamarra koiuz gero zigortxo bat ordaindu behar dena edo galdu egiten dena. Hau egin duen nagusiak badaki jakin, sarritan, norberak hobeto pasatzen duena umeek eurek baino. Amaieran gauza desberdinak egiten ohi dira; Arteagan, Bermeon haginka egiten zaio atzamarrean, Durangon kili-kili egiten zaio, gurean errezitatua egin artean atzamar puntarekin tripan kili-kili egiten izan zaie.

Herri guztietan ez da olgatzeko erabiltzen, leku batzuetan zotz egiteko formulatzat erabiltzen da; esaterako Bakion

"Akabetan danielen au ero itten da, bai txitximurke, txitximurke (**Abadiño**)" (Amaitzen denean hau edo egiten da, bai txitximarka, txitximarka)

"Umeak oten dies an atzamarrak ifiñite an, silimini kanpa asten dan orduen, sur, eskapetako (**Dima**)" (Umeak egoten dira han atzamarrak ipinita han, zelemina kanpan hasten den orduan, zuhur, eskapatzeko)

"Orduen umieri ba, kilikili ero seoser eitten dxakon umieri (**Durango**)" (Orduan umeari ba, kili-kili edo zer edo zer egiten zitzaion umeari)

"Koixu atzamarra eitxen tzakun, da solteu bes, arik eta berak atzera kante artien (**Errigoiti**)" (Koiu atzamarra egiten genion, eta soltatu ere ez, harik eta berak atzera kantatu artean)

"Nor dosu nobioa? Eta esanaso iten geuntzen (**Zamudio**)" (Nor duzuz nobioa? Eta esanarazi egiten genion)

"Or batueskero ori esate orduen, orduen esan bisite san nor dosu nobie? Agora eroan bear (**Zeanuri**)" (Hor batuz gero hori esate orduan, orduan esan behar izaten zen nor duzu nobia? Ahora eroan behar)

"Kadrille bat paretan da, esta? gero atzamarrak iminten dosus olan, bakotxak atzamar bat, da gero ba, preguntetan yakon nor dosu suk, u, nobioa? (**Zeanuri**)" (Koadrila bat paratzen da, ezta? Gero atzamarrak ipintzen dituzu hola, bakoitzak atzamar bat, eta gero ba, itauntzen zitzaion nor duzu zuk, nobioa?)

Atxia motxia
 pelolipan
 sirri sarra
 kortatxur
 bera beteko sulotxu
 (**Abadiño**)
 Atxia motxia
 bestela kutxia
 sirri sarra
 domili pan
 sure semie errotan
 errota txikidex kli klan
 Kataliña buelta
 buelta bolenta
 tipirripiton
 Martin sapaton
 kañubera tronpeta
 lau kirikon
 (**Abadiño**)

² Lekuko honen alabak 'sendoa' barik 'solie' esaten du.

Atxitxe mitxidxe tutulipan
gure aitte errotaxure
errotatxutik urune ekarri
errotatxuen urunik es
atxitxe mitxidxe
(**Arrieta**)

Atxitxe mitxidxe
komelapan
sure semie errotan
sure semie errotati datorrenerako
onek atzamartxu bidxek
kilin-kalan
jua neitxen basora
topa neuen asto bat
kendu noitzon bustena
ipiñi notzon barridxe
Anton barragarridxe
astillak eta Jesus
amen Jesus
(**Arteaga**)

Atxia pitxia
txinyorran kakia
dxoan dxoan
landa bitara,
errila miela
dos en la cama,
ibitoria triki trangan pis
(**Bakio**)

Atxia pitxia komunika
sure semian errotan
topa nauen asto bat
kendu notzan busten bat
imiñi notzan beste bat
(**Bermeo**)

Atxio mitxio komuniplan
seure semie errotan
arexen bille nabillela
tope naben asto bat
kendu notzen busten bat
ipiñi notzen beste bat
(**Bermeo**)

Atxia pitxia
komunipa
sure semia errotan
topa nauen asto bat
kendu notzan busten bat
imiñi notzan beste bat
errota txikirik
klis krausk kausk
(**Bermeo**)

Atxia mutxia pirulipa
sure semea errotan
errota txikitik
errota nausire klin klan
katalina veinte
veinte volantes
txipirripiton
martin sapaton
kañuela tronpeta
lau sirikol
(**Berriz**)

Atxia mitxia
Perolipan
Sure semia errotan
Errota txikitik
Errota andire klin klan
Kataliña veinte
Veinte bolante
Tipirripiton
Martin sapaton
Kañubera tronpeta
Lau sirikol
(Berriz)

Atxio mitxio
komolopan
neure semea errotan
yoan nintzen errotara
tope nendun erbi bet
jaurti neuntzen arri bet
selemiñe kanpan
selemiñe kanpan
gari buru andi bet
(Derio)

Atxea motxea
bestela kotxea
sirrin sarran
dominepan
neure semea errotan
yoa nintzen errotara
topau neuen erbi bet
yaurti neuntzen arri bet
atara neuntzen eskerreko
begi gorri bet
selemin kanpan
selemin kanpan
gari buru andi bet
(Dima)

Txitxirri mitxirri
don sapatari
kakiak kakian
lau mandatari
yoanintzen errotara
topau nauen erbi bet
yaurti nauntzen arri bet
atara nauntzen eskerreko
begi gorri gorri bet
silimini kanpa
silimini kanpa
txau
(Dima)

Atxia motxia
koloripan
sure semea errotan
errotara joanintzan
topau neban erbi bat
atara nontzan begi bat
begi gorri txiki txiki bat
(Durango)

Atxidxe mitxidxe
konelapan
sure seintxue errotan
errotatik etzera
tope neben asto bat
kendu notzan busten bat
ipiñi notzan barri bet
Juan Anton baragarri bet
(Errigoiti)

Atxidxen mitxidxen
konelipan
nire seintxue errotan
errotatik etzera
tope naban asto bat
kendu notzan busten bat
ipiñi notzan beste bat
baragarri bat
(Errigoiti)

Atxidxe mitxidxe
kunkulipan
errota txikidxen urunik es
joan joan bide bates
tope neban erbi bet
jeurti notzan arri bet
atara notzan begi bet
ipiñi notzan barri bet
selemiñe kanpa
selemiñe kanpa
gari buru andi bet
txirripist!
(Errigoiti)

Atxidxe mitxidxe
punpulipan
nire semie errotan
errota txikidxen urunik es
joan nintzen bide bates
tope neuen erbi bet
jeurti notzan arri bet
kendu notzan begi bet
ipiñi notzan barri bet
Anton selemiñe kanpa
Anton baragarridxe!
(Errigoiti)

Atxidxe mitxidxe
kinpulepan
neure seintxue errotan
errotara dxoanitzen
tope nuen erbi bet
dxeurti nintzen arri bet
atara nintzen begi bet
ipiñi nintzen barri bet
selemiñe kanpa
selemiñe kanpa
gari buru andi bet
(Fika)

Atxio mitxio komuniplan
seure semie errotan
arexen bille nabillela
tope naben asto bat
kendu notzen busten bat
ipiñi notzen beste bat
(Forua)

Atxidxe mitxidxe
kinpulipan
neure semie errotan
errotatxuen urunik es
dxoan dxoan bide bates
tope neuen erbi bet
tiritu nintzen arri bet
kendu nintzen begi bet
ipiñi nintzen barri bet
selemiñe kanpan
selemiñe kanpan
gari buru andi bet
(Fruiz)

Atxio mitxio
don sapatari
txindorran kakia
lau mandatari
yoan yoan pista basora

andik etorri
aitari ta amari
eskuk garbittu
ta anda lijero
(Gatika)

Atxia mutxian
bestela kutxian
sirri sarran
domiñi pan
sure semia errotan
errota txikidxen nabillenan

klin klan
derio, señor
a benesien iñor estau
txau
(Iurreta)

Atxio mitxio kubinipan
gure semea errotan
errotara nindoala
topa neban asto bat
kendu neutzan busten bat
ipiñi neutzan beste bat
errota txikia plis plas
(Larrabetzu)

Atxio mitxio
don sapatari
ollarren kakia
lau mandatari
yoan yoan
Portualtera
andi etorri

aitteri tte amari
eskuk garbittu
te pista basora
(Laukiz)

Atxio mitxio kubinipan
sure semea errotan
errota txiki urunik es
yoan yoan bide bates
topa neun erbi bet
bota neuntzen arri bet
atara neuntzen begi bet
selemine kanpo
selemine kanpo
gari buru aundi aundi bet
(Lezama)

Atxile matxile
kumilipan
nire semia errotan
errota sarrian urunik es
errota barrien urune bai
joan nintzan basora
tope neuen erbi bet
jaurti neuntzen arri bet
selemine kanpa
selemine kanpa
gari buru andi bet
(Lezama)

Aitxitxe maitxitxe
kolorepan
nire semia errotan
yoa nintzen errotara
errota txikerren urunik es
yoan yoan bide bates
tope nendun asto bat
kendu notzen busten bat
imiñi notzen beste bat

selemiñe buru
selemiñe buru
(Mungia)

Atxidxe mitxidxe komelapan
sure semie errotan
errota txikidxen urunik es
joan joan bide bates
tope naberen erbi bet
jaurti notzen arri bet
atara notzen begi bet
ipiñi notzen berri bet
selemiñe kanpa, selemiñe kanpa
gari buru andi bet
(Muxika)

Atxidxe mitxidxe tunilipan
gure semie errotan
errota txikidxen urunik es
joan joan bide bates
tope naberen erbi bet
jeurti notzan arri bet
ipiñi notzan barri bet
selemiñe kanpa selemiñe kanpa
gari buru andi bet
(Muxika)

Atxia motxia
kumiñepan
sure semea errotan
errotarie silloyan
galdaron da galdaron
deiker eta gatz emon
konentxin basora
topau nendun erbi bet
jaurti neuntzen arri bet
atara neuntzen
eskerreko begi gorri gorri bet
(Orozko)

Atxia motxia konelipan
sure semia errotan
errota txikidxa klin-klan
kataliña dentan
dentan bolentan
tipirripiton
Martin sapaton
kañabera tronpeta
lau kilikon
(Otxandio)

Atxi mitxi, kumuni pan
nire semiak errotan
yoanintzen errotara
tope nenduan erbi bet
yaurti neuntzen arri bet
atara neuntzen begi bet
selemine kanpa, selemine kanpa
gari buru, buru andi bet
(Zamudio)

Atxio mitxio kubinipan
sure semea errotan
errota txiki urunik es
yoan yoan bide bates
topa neuen erbi bet
bota neuntzen arri bet
atara neuntzen begi bet
selemine kanpo
selemine kanpo
gari buru aundi aundi bet
(Zamudio)

Atxea motxea koloripan
seure semea errotan
errotara ninoyala
topau noan erbie
yaurti neuntzen arrie

selemiñe kanpan
selemiñe kanpan
gari garu bet
(Zeanuri)

Atxia motxia perolipan
nire semea errotan
yoa nintzan errotara
topau noan erbi bat
kendu neuntzen begi bat
ipiñi neuntzen barri bat
selemi kanpa, selemi kanpa
gari garau bat
(Zeanuri)

Atxia motxia perolipan
naure semea errotan
yoa nintzan errotara
topau noan erbi bet
yaurti nuntzen arri bet
selemiñe kanpa, selemiñe kanpa
gari gorri gorri bet
(Zeanuri)

Txitxirri mitxirri
jaun sapatari
txakurren kakea
lau mandatari
yoa nintzen errotara
topau noa erbi bet
yauti nuntzen arri bet
atera nuntzen begi bet
selemiñe kanpan
selemiñe kanpan
gari gorri, gorri andi bet
(Zeanuri)

Atxea motxea konilipan
seure semea errotan
errotaria jiboa
yoan neintzen basora
topa neindun erbi bet
yaurti neuntzen arri bet
atera neuntzen eskerreko
begi gorri gorri gorri bet
selemin kanpoan
selemin kanpoan
gari buru andi bet
(Zeberio)

Atxia motxia konelipan
saure semea errotan
yoan neintzen basora
topa nendun erbi bet
yaurti neuntzen arri bet
atara neuntzen eskerreko
begi gorri gorri gorri bet
selemiñe kanpa
selemiñe kanpa gari bet
(Zeberio)

Atxea motxea konelipan
naure semea errotan
yoaneitzen
d'antxe nagoala
ikus nindun erbi bet
jaurti neuntzen arri bet
atara neuntzen begi bet
(Zollo)

Atxia motxia
konolipan
naure semie errotan
joa nitzen olara
topa nauen erbi bet
jaurti nontzen arri bet

atara nontzen eskerreko
begi gorri gorri bet
selemiñe kanpa
selemiñe kanpa
txoritxu!
(Zollo)

Atxiri mitxiri komiñetan
Sure semie errotan
Dxoan eiñ sen basora
Tope nabek erbi bet
Jaurti neutzen arri bet
Atara notzen begi bet
Ipiñi notzen barri bet
Txilibrin,txilibrin,fuera
(Zornotza)

Ume txikerrak txalo egiten ikasteko eta geroago egin dezan "Txalo pin txalo" deritzon kanta egiten izan da. Txalo egiteari berari "txalo pitin (eiñ)" esaten izan zaio Gatican.

Txalo pin txalo
Txalo pin txalo
katotxua mispillien
ganien dago
badago bego
badago bego
sapatatxu barridxei
begire dago
(Abadiño)

Txalo pin txalo
txalo ta txalo
katutxue mispilluen
ganien dago
badago bego
sapatatxu suridxek
garbitan dago
(Arrieta)

Txalo pin txalo
txalo ta txalo
katutxua mispille
gañien dago
zapatatxu barridxeri
begire nago
(Aulesti)

Txalo pin txalo
txalo ta txalo
katua mispira
gañian dago
badago bego
bego badago
sapatatxu berrixai
begira dago
(Ondarroa)

Txalo pin txalo
txalo ta txalo
katutxue misperrun
ganian dago
dago edo bego
sapata berridxen
begire dago
(Bakio)

Txalo pin txalo
txalo ta txalo
katutxu mispirian
ganean dago
(Berango)

Txalo pin txalo
txalo pin txalo
katutxu mesmeru
 ganiem dago
 badago bego
katutxu mesmeru
 ganiem dago
(Bilbo: Buja)

"Txalo pin txalo
katutxue mismerutxuen
 ganiem dago
 badago bego
sapatatxu barritxuen
 begire dago
 txalo ta txalo
(Derio)

Txalo pin txalo
txalo ta txalo
katutxue mispira
 ganiem dago
 badago bego,
 bego badago
sapatatxu barrieri
 begira dago
(Dima)

Txalo pin txalo
txalo pin txalo
katutxua mesmeru
 ganean dago
 badago bego
 badago bego,
sapatatxu barriri
 begire dago
txalo pin txalo
(Dima)

Txalo pin txalo
txalo ta txalo
katotxua mispillien
 ganiem dago
 badago bego
 bego badago
sapatatxu barridxeri
 begira dago
(Elantxobe)

Txalo pin txalo
txalo ta txalo
txoritxua sasitzian
 ganiem dago
 badago bego
 bego badago
sapatatxu barridxeri
 begira dago
(Elantxobe)

Txalo pin txalo
txalo ta txalo
katotxua mispillin
 ganiem dago
 badago bego
sapatatxu barridxari
 begira dago
 badago bego
(Elantxobe)

Txalo pin txalo
txalo ta txalo
katotxue mispillien
 ganiem dago
 badago bego
 dago ta dago
sapatatxo barridxeri
 begire dago
(Ereño)

Txalo pin txalo
txalo ta txalo
katutxue mispilluen ganien dago
badago bego
sapatatxu barridxen begire dago
(Errigoiti)

Txalo pin txalo
txalo ta txalo
katutxue mispillien
ganien dago
badago bego
bardin badago
sapatu barridxen
begire dago
(Forua)

Txalo pin txalo
txalo ta txalo
katutxua misperu gañian dago
badago bego
sapatatxu barrien
begira dago
(Galdakao)

Txalo pin txalo
txaloka dago
katutxu mismeru
ganian dago
badago bego
sapatatxu barrien
begire dago
badago bego
txalo pin txalo
(Galdakao: Usansolo)

Txalo, txalo,
txalo ta txalo,
geure neska politak
ementxe dagos
(Galdakao)

Txalo pitin txalo
txalo ta txalo
katutxu misperrun
ganean dago
badago bego
bego badago
sapatatxu barrien
begire dago
(Gatika)

Txalo pin txalo
txalo ta txalo
katutxu misperrun
ganean dago
badago bego
bego badago
sapatatxu barrien
begire dago
(Gatika)

Txalo pin txalo
txalo ta txalo
katutxue mismeruen
ganian dago
Txalo pin txalo
txalo ta txalo
(Lezama)

Txalo pin txalo
txalo ta txalo
katutxue mismeruen
gania dago
badago dago
badago dago
sapatatxu barrien
begire nago
(Lezama)

Txalo pintxalo
txalo ta txalo
katutxue mismeruen
ganean dago
badago bego
sapatatxu barieri
begire dago
(Lezama)

Txalo pin txalo
txalo pin txalo
katotxue mispillen ganien
begire dago
bego bego
sapatatxu barridxen
begire dago
(Ibarrangelu)

Txalo pin txalo
txalo ta txalo
katotxua mispillen
gania dago
badago bego
sapatatxu barridxari
begira dago
(Ispaster)

Txalo pin txalo
txalo ta txalo
katutxua mispille
gania dago
badago bego
sapatatxa barridxeri
begire dago
(Iurreta)

Txalo pin txalo
txalo ta txalo
sapatatxu barrien
begire nago
badago bego
(Jatabe)

Txalo pin txalo
txalo ta txalo
katutxue misperuen
gania dago
badago bego
bego badago
sapatatxu barrien
begire dago
(Larrabetzu)

Txalo pin txalo
txalo ta txalo
katutxu suria
mispuruen ganian dago
badago bego
sapatatxu suri barrien
begire dago
(Larrabetzu)

Txalo pin txalo katutxu misperrun ganean dago badago bego badago bego sapata barrien begire dago (Laukiz)	sapata barrien begire dago (Lezama)
Txalo pin txalo txalo ta txalo txoritxua mispillan gania dago (Lekeitio)	Txalo pin txalo katutxue mispillen ganien dago ta bego umieri sapatatxu barridzek ekarritteko (Muxika)
Txalo pin txalo txalo ta txalo katutxu misperrun ganean dago badago bego bego badago sapata barrien begire dago (Lemoiz)	Txalo pin txalo katutxua mispira gañian dago dago bai dago bego bai bego sapatatxu barridxen begira dago (Otxandio)
Txalo pin txalo txalo ta txalo katutxu misperrun gania dago txalo ta txalo txalo pin txalo katutxu misperrun gania dago (Lemoiz)	Txalo pin txalo txalo ta txalo txalo pin txalo katutxua mispira gañian dago bego bai bego dago bai dago sapatatxu barridxen begira dago (Otxandio)
Txaltoa txan ta txaltoa txalo ta txalo katutxu misperrun ganean dago badago bego be	Txalito txalo txalo ta txalo txakurtxu txikitxu misperrin ganen dago badago estago bego badago (Sopela)

Txalo pin txalo
txalo txalito
txalo pintxalo
txalo pintxalo
(Sopela)

Txalo pin txalo
katutxu misperuen
ganean dago
badago bego
sapatatxu barriak
ekarten dago
(Zamudio)

Txalo, txalo pin txalo
katutxue misperuen
ganean dago
dago bego
sapatatxu barrien
begire dago
(Zamudio)

Txalo pin txalo
txalo pin txalo
katutxua mismeruen
ganean dago
badago bego
badago bego
sapatatxu barrien
begire dago
(Zeanuri)

Txalo txalo txalo pin txalo
katutxua mismeruen ganean dago
dago ta bego
sapatatxu barrien begire dago
(Zeanuri)

Txalo pin txalo
txalo ta txalo
katutxu mispillaren
ganién dago
badago bego
sapatatxu barridxen
begire dago
(Zornotza: Euba)

Eskuak elkarren ganean ipinita, atzamarretatik oratuta ondoko bertso hau egiten zen; bertsoxoaren amaierarekin batera, karrari ematen zitzaion.

Txatximingorri patata
bat bi iru lau bost
sei eta eskapa
(Jatabe)

Zamudioko informatzaileek esan diguten moduan, eskuekin egiten izan da beste olgeta bat, berorretan jokalarien eskuak banan-banan elkarren ganean ipintzen dira. Azpian geratzen den eskua atera behar da atzera ganean ipintzeko gero eta arinago egiten denez gero, baten batek huts egiten duenean, motroilora egiten da eskuekin. Olgeta edozein lekutan egiten da, eta umeak hazieiaz esku kolpean indartsuagoak izaten dira.

motrollora (Zamudio) [motroilora]

"Olan arkalan ganean imini, motrollora, olan imini arkalan ganean eskuek eta motrollora onetara, ta gero atzanean sapi sapi sapi einde (Zamudio)"
(Hola elkarren ganean ipini motroilora, hola ipini elkarren ganean eskuak eta motroilora honetara, eta gero atzanean sapi, sapi, sapi eginda)

Umearen fardel oihalak edo txizaren boloak kanbiakeran, garbi-garbi egiten zaion artean, hanketatik oratu eta hankak gurutzatuta eta mugituta ondoko hau esaten zaio.

"Ume txikien anka biek koyu, altzoan iminite, ta kurtzietu eurrean, batera ta bestera (Zamudio)"
(Ume txikien hanka biak koiu, altzoan ipinita, eta gurutzatu aurrean, batera eta bestera)

Au sanko
au mando
au biboa
au betor
(Lezama)

Au sanko, au manko
arto beterik yoan eta
garis beterik banator
torros, tos, tos, tos
(Zamudio)

Ai sanko, ai manko
arto beterik yoan eta
garis beterik balator
torros, tos, tos, tos
(Zamudio)

Au sankoa
au gure loa
au be etor da
au sendoa
(Zeanuri)

Zutundu eta oinez abaitzeko lehen urratsak ematen hasten denean, nagusiak eskuetatik heldu eta erabili egiten du; mugitzeko eta oinez hasteko honako hauek esaten dira:

pata-pata (Forua, Gatika); **patan-patan** (Leioa, Zamudio); **piti-pata** (Gatika) [**pata-pata, piti-pata**]
tatai (Otxandio) [**tatai**]

"Gure umiek ikesi dau tatai (**Otxandio**)" (Gure umeak ikasi du tatai)

txaka-txaka (Abadiño, Arrieta, Bakio, Forua, Gatika, Larrabetzu, Urduliz, Zamudio, Zornotza); **txiki txaka** (Arrieta); **txipi-txapa** (Arrieta, Orozko), **txapa-txapa** (Lezama) [**txiki-txaka, txaka-txaka**]

"*Txipi txapa oñes asikerie ixengo da, txipi txapa txipi txapa, oñes ya asten danien (Arrieta)*" - (*Txipi-txapa oinez hasikera izango da, txipi-txapa txipi-txapa, oinez ja hasten denean*)

"*Eta gero apapan txaka-txaka (Bakio)*" (*Eta gero apapan txaka-txaka*)

txantxan (Forua, Gatika, Sopela) Eskuetatik oratuta mugitu umea dantzan balebil legez [**txantxan**]

txapa-txapa (Ondarroa, Zamudio); **taka-taka** (Abadiño, Bakio), **traka-traka** (Elantxobe) arin ibili [**txapa-txapa, traka-traka**]

txiri txiri eñ (Elantxobe) [**txiri-txiri egin**]

txitan iñ (Gatika); **txitan-txitan** (Gatika) [**txitan egin**]

Umearen segurtasun eza adierazteko, jausiko ez jausiko dabilenean, edo mugimendu handiz ibiltzen denean:

dingilin-dango (Elantxobe) Mugimendu handiz ibili, kumari eragitea ere bai [**dingili-dango**]

dinbi-danba dxun (Elantxobe) [**dinbi-danba joan**]

titili-totolo (Larrabetzu) [**titili-totolo**]

tontolo-montolo (Elantxobe) [**tontolo-montolo**]

Oinez irakasteko, gorago esaneko modulez, nagusiak eskuetatik oratu eta kantatxo hauetariko bat egiten izan zaio

"Ba ser esta? Oñes ikisteko umiari, esaten yakon, oñe oñe, goatu umeari bai? Txiri txiri, aita legez, ama legez, eta umea ba barreka aste san, esta? (Zeanuri)" (Ba zer ezta? Oinez ikasteko umeari, esaten zitzaion, oñe-oñe, oratu umeari bai? Txiri txiri, aita legez, ama legez, eta umea ba barreka hasten zen, ezta)

Txaka txaka
oñes oñes
(Dima)

Txiri txiri
oñes oñes
(Dima)

Oñe oñe
txiri txiri
aita legez
ama legez
(Zeanuri)

Kadera baten gañian txotxo
kadera baten gañian
ia bat ori kantzau da eta
bestera jira gaitian
(Zaldibar)

(segituko dut)